

LITERATURA. Argitalpen berriak hiru ardatz nagusi ditu: lurra, itsasoa eta oroimenarekin lotura duten poemak



MARISOL RAMIREZ/ARGAZKI PRESS

Sabina de la Cruz, Blas de Oteroren alarguna, eta Iñaki Azkuna, liburuaren aurkezpenean.

SABINA DE LA CRUZ

Blas de Otero Fundazioko presidentea

«Ororen gainetik 'Poemas vascos' biografia bat da, Blasek bihotzarekin idatziriko biografia»

«Bilbo amodio-gorrotzko hiri bilakatu zitzaion Oterori. Hura ukatu nahi zuen, baina harengana itzultzen zen beti»

duan, deialdiaren benetako zioa azaltzera ekin zioten berehala.

«Ororen gainetik *Poemas vascos* biografia bat da, bihotzarekin idatziriko biografia», adierazi zuen Sabina de la Cruzek. «Pasio guztiek bezala, Oterok bere lurrarekiko sentitzen zuena maitasunez baina baita saminez ere beterik zegoen. Bokazioa behar bezala landu nahi badu, poeta ingurunetik askatu behar da. Erabaki gogorra du hori, bere burua ez ezik alboan dituenak min ditzakeena. Zentzu horretan, Bilbo amodio-gorrotzko hiri bilakatu zitzaion Blasi. Hura ukatu nahi, baina harengana itzultzen zen. Edonon zegoela ere, beti ailegatzen zitzaion bere lurraren oihartzuna».

Itsasoa, lurra eta oroimena. Hiru ardatz horien gainean egituraturik dago *Poemas vascos*. Tartean 1940an idatziriko *Aldea*-tik 1975era doazen hainbat poema eta testu labur. *Made-moiselle* Isabelen ondoan igarotako haurtzarotik Orozkon amama Pepita Sagarminagaren ortuan ezaguturiko lehen amodioaren goxora; Nerbioi ibaiertzean erreturiko kezka sozialak edo heldutasunaren iratzartzea; Celaya, Aresti, Oteiza, Lizardi eta Lauaxeta; munduko edozein txoko bazterretara Kantauri itsasoaren orroa berarekin eramango zuen Oterok. Lourdes Iriondori zuzenduriko *Euskera egin dezagun*-en jaiotzan galduriko hizkuntza erreklamatu zuen berak, lurrarekin erabat lotuko zuen euskara maite baina urruna. «Arestiri inbidia pixka bat zion, hark pentsatu ez ezik euskaraz idazten eta mintzo zelako. Blasek, berriz, euskal sena bakarrik mantendu zuen bizirik», zioen De la Cruzek.

Ehun eta laurogeita hamahirugarren orrirako poetak badauki bigarren bizitza batean etxerako itzulera nahitaezkoa duela. «Berriz jaioko naiz ni, itsaso, Hondartza Luzeko hareetan, geure bizitzak inbaditzen dituzten olatuen kateak apurtuta».

Blas de Oteroren atlas sentimentala

Euskal Herriarekin lotura duten poeta bilbotarraren poemak bildu dituzte 'Poemas vascos' liburuan; haren alargunaren arabera, Oterok «bihotzarekin idatzitako biografia» da liburua

OBRA ARGITARAGABEAK

Otero ezezaguna laster kalean

Poetaren omenezko kongresuan aurreratu bezala, Blas de Oteroren obra guztiak jasoko dituen bilduma kalean izango da denbora gutxi barru. Atzo Sabina de la Cruzek azaldu zuenez, testuak aukeratuta dituzte eta argitaletxea lotzea da falta zaien gauza bakarra. Bestalde, Blas de Oteroren azken lanak —gaur egun arte argirik ikusi ez duten *Hojas de Madrid* eta *La galerna*— argiratzeko asmoa agertu du poetaren izena daraman fundazioak. Oterok Madrilen igarotako azken etapari erantzuten dio *Hojas de Madrid*-ek, poema batzuk salbu arras ezezaguna den bildumak. *La galerna*, berriz, poetak berak maiz izan zituen depresioaldietatik sortu zitzaion.

Estibalitz Ezkerra | **BILBO**

«Zeren ez baitago etxeko egurra baino hoberik, behintzat hura etxekoi bihurtu gura duen horrentzat. Herrialde guztiek elkar mugatzen dute, honetara iritsi gara. Baina nik neure atera deitzen dut, eta bere soinuak erantzun egiten didala badakit, ez bere kabuz, baizik eta beste esku batzuen kolpeen eraginez, esku gazteak ziur aski. Hauxe eta isiltasun pixka bat historia- ren gelan dira interesa duten gauza bakarra». Noizbait hainbeste maitasun eta ardura eskainiriko proiektuak argia ikus- tekotan, hitzaurrea *A esto hemos llegado* (*Honetara iritsi gara*, 1966) bere magalean jaso zuen lurraldeari zuzenduriko narra- zio laburrak zabaldu behar zue- la zehaztu zuen Blas de Oterok. Haren hitza bete egin da.

Zaila izango litzateke data bat zehaztea, goizean edo gauez gertatu ote zen, noiz ekin zion Bilboko poetak jaioterriari lotu- riko poemak eta aipamenak bil- tzeari. Baina egin zuen. Agian

barruan zuen hotsa isilaraztea- gatik, akaso modu horretan soi- lik lortuko zuelako Angel Ortiz- Alfau erabat asebetetzea. Az- ken horrek, Oteroren barruko harra bailitzan, ohiko gorabehe- rak kontatu ostean zera galde- tzen zion: «zure euskal poema horiek, noizko Blas?».

Banan-banan gainbegiraturako poemak

Sabina de la Cruzek kontatzen duenez, egun batean aspaldiko ametsari irtenbidea bilatzeko garaia zela erabaki zuen poetak. Urteekin pilaturiko poemak hartu, eta banan-banan haiek guztiak gainbegiratzen hasi zen. Euskal Herriarekin zerikusia zu- tenak karpeta batean gordetzen zituen, eta gainontzekoak zeu- den moduan laga. Garai hartan, Madrilgo unibertsitatean litera- tura irakaslea zen Sabinak, ba- karrik uzten zuen poeta klaseak ematera joateko. Eta utzi bezala aukitzen zuen Blas etxeratzen zenean: karpeta alde batean, eta poema metatxoak bestean.

1979ko ekainaren 29ko egun

sargaritsuan karpetatxoa ez zen bere tokitik mugitu, ezta hu- rrengo egunetan ere. Bere aza- lean letra argiz eta biribilez ida- tziriko haxe irakur zitekeen: *Poemas vascos*.

Oteroren heriotzak lehenik eta De la Cruz sortu zitzaizkion zenbait arazok ondoren, eten egin zuten *Poemas vascos* argita- ratzeko prozesua. Hala ere, ez poetaren alargunak ez Ortiz-Al- fauk, ez zuten Oterorekin zuten zorra ahaztu, eta orain aste bi Bilboko poetaren omenez anto- laturiko kongresuak hura kita- tzeko aukera eskaini zien. Jada Oteroren euskal poemak erreali- tatea dira.

Lurraren oihartzuna

Atzo *Poemas vascos*-en argitara- pen arduradun legez bete behar zituztenen aulkietako bat hutsik zegoen. Keinu harekin iragan astean zendu zen idazlea oro- imenean bizi-bizirik dutela adie- razi nahi zuten Sabina de la Cru- zek eta Bilboko alkate Iñaki Az- kunak. Baina Ortiz-Alfauk berak gura izango zuen mo-